

zumaia

10. zenbakia • 2010eko Abuztua

ZU
udalaldizkaria



Zumaiako Udala



**auzo
BUSA**

Oikia - Zumaia
Zumaia - Oikia



Herritarrek
badute autobusa

Udalak Oikia eta Zumaia lotu ditu Auzobusaren bidez; urtebeterako proba pilotua izango da eta ez da bazterten aurrerago zerbitzua beste gunetara zabaltzea.

aurkibidea

2 Traste zaharren bilketa

3 Inkesta

4 Udala zuzenean / Fototeka

5 Ni Zumaiarekin

6 Motxian

8 Auzobusa

11 Musika jaialdia

12 Ordenantza berria

13 Udaleku irekiak

14 Herritarren batzordeak

15 Elkarrizketa

16 Eraikitzen

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Zumaiazu aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaiako Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Zumaiako Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 4.500 ale
L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

udal zerbitzua; Traste zaharren bilketa zerbitzua

Traste zaharren bilketa hilean bi alditan egiten hasiko da aurrerantzean Udala. Orain arte hilean behin egiten zen, baina jasotzen den trasteen bolumen handia ikusita, bilketa hilean bi aldiz egiten hasiko dira. Hemendik aurrera, hileko 2. eta 4. astearte iluntzetan atera beharko dituzte herritarrek traste zaharrak edukiontzien eremuetara. Herritarrek edukiontzien eremuaren alboan utzi beharko dituzte traste zaharrak, eta horri lotuta zenbait argibide edo aholku eskaini dituzte Udaleko teknikariek: "trasteak ez dira utzi behar edukiontzien kontra jarrita, horrek zabor bilketa oztopatu dezakeelako.

Bilketa sistema honekin, herrian bildutako traste zaharrak Zumaiako Garbigunera eramango ditu aurrerantzean Udalak (lehen Zarauzko Urteta zabortegira eramaten ziren). Horri lotuta, herritarrei gogorarazi nahi izan zaie gainontzeko egunetan ere eraman ditzaketela traste zaharrak Garbigunera, beti ere biltegiak indarrean duen ordutegian.

El Ayuntamiento de Zumaia amplía el servicio de recogida de objetos voluminosos de origen domiciliario. En adelante la recogida se efectuará dos veces al mes, los martes de la segunda y cuarta semana de cada mes. Así, los vecinos tendrán que depositar sus residuos de la casa los martes por la noche, siempre y cuando sea la segunda o cuarta semana. Los técnicos del Ayuntamiento han aconsejado no dejar los objetos apoyados sobre los contenedores, puesto que eso podría impedir la recogida selectiva de los residuos.



Oharra / Aviso:

Komeni da trasteak utzi aurretik Udaleko Hirigintza sailean abisua uztea.

Se recomienda avisar en el departamento de Urbanismo del Ayuntamiento antes de depositar el objeto en la calle.

Udako oporraldian herrian geratzen al zara?



Fernando Olaizola

Herrian geratu izan gara betidanik. Hementxe geratuta ere ederki pasatzen dugu guk, kanpora joan beharrik gabe. Pulpo elkarteko kidea ere banaiz sorreratik bertatik eta hortxe ibiltzen gara. Txikiteoari ere jarraipena ematen diogu udan, eta herrian bertan.

Desde siempre, tenemos la costumbre de quedarnos en Zumaia



Mari Carmen Peña

Uztailean eta abuztuan herrian egoten gara. Hondartza ederrak ditugu hemen eta eguraldia ere atsegina izaten da gehiengan. Aurretik ateratzen gara gu, maiatza eta ekaina igarotzen ditugu kanpoan, baina uztaila eta abuztuan herrian geratzen gara.

Solemos salir en mayo y en junio, pero en julio y agosto nos quedamos aquí.



Susana Intxaurre

Abuztuan izaten ditut oporrak eta astebete pasatzera ateratzen gara norabait. Herrian gauden denboraldian zehar ez gara asko ateratzen. Oporrak deskantsatu eta lasai egoteko aprobetxatzen ditugu. Urtean zehar nahikoa okupatuta ibiltzen gara eta.

Aprovechamos las vacaciones para descansar y estar tranquilos.



Conchi Manterola

Aurten ez dugu egin planik opor garairako eta ez gara joango kanpora. Herrian bertan igaroko dugu uda. Hemen gaudenean parte hartzen dugu antolatzen diren ekitaldi desberdinetan. Euskal Jai egunean edota Berbena Galan, adibidez, ateratzen gara.

Cuando no salimos, solemos participar en la fiesta vasca o en la Verbena de Gala.

udala



Uztailaren 15ean abiatu zen Madrilgo Auzitegi Nazioanalean Udalbiltzaren kontrako epaiketa eta Zumaiaiko udal gobernua ere bere babesa adierazi nahi die auzi honetan auziperatuta dauden guztiei. Zazpi urte badira Udalbiltzaren kontrako auzia abiatu zutela eta ez daukagu zalantzarik eraso honen bidez euskal hautetsien nazio ordezkari bat osatzea eragotzi nahi dutela. Guk Udalbiltza aske nahi dugu eta Udalbiltzak eta auzipetuek izango duten defentsarik eraginkorra herriz herri eskainiko diegun babesa eta laguntza izango da.

El pasado 15 de julio dio inicio el juicio contra Udalbiltza en la Audiencia Nacional española y el equipo de gobierno del Ayuntamiento quiere mostrar su solidaridad y apoyo hacia las personas encausadas en el sumario. Ya han pasado siete años desde que comenzó el sumario contra la primera Institución Nacional Vasca y estamos seguros de que mediante esta operación quieren impedir la composición de una delegación nacional formada por electos de diversas instituciones de Euskal Herria. El equipo de gobierno quiere a Udalbiltza libre, y anima a toda la ciudadanía a participar en las iniciativas de apoyo a favor de esta institución.

Fototeka



nolakoa zen garai bateko Zumaia? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzten Zumaiaiko argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaiarrek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.

Argazki artxibo osoa www.euskomedia.org helbidean dago ikusgai.



Santiagoko hondartzaren ikuspegia. Aparkatuta dauden autoak ikusita, argazkia 1950. hamarkadakoa dela esan daiteke.

Vista de la playa de Santiago. Viendo el aparcamiento de coches, la imagen podría ser de la década de 1950.



Dantzariak Odieta pilotalekuan kaxarreko izeneko dantzan. Kaxaren gainean, Joxeba Yeregi. 1945. urtean ateratako argazki da.

Los bailarines en el frontón Odieta bailando kaxarreko. Encima de la caja, Joxeba Yeregi. La fotografía_a fue tomada en el año 1945.

Gizabidezko jarrerak bultzatu asmoz, 'Ni Zumaiarekin' kanpaina abian jarriko du Udalak

Zumaia herri erosoagoa, garbiagoa eta atsegina izan dadin lortzea da helburua.



NI ZUMAIAREKIN



Zure jarrerak Zumaia atsegina, txukuna eta erosoagoa egiten du

HARTU OLATUA

herriarren zein gainontzeko eragileen artean gizabidezko jarrerak bultzatzeko asmoarekin, Udalak kanpaina berri bat abiatu du. 'Ni Zumaiarekin' izango da kanpainaren goi-burua eta herritarrei jarrera egokien alde egiteko konpromisoa eskatzen zaie, Udalaren ekintza publikoekin batera herri atsegina lortzeko. Bide horretan, zaborrik gabeko kaleak sortu nahi dira, zaratarik gabekoak, edota trafiko normalizatutako kaleak... Azken batean, Zumaia, garbia eta atsegina nahi dugulako.

Oro har, Zumaiako herritarrei zuzenduko zaie kanpaina, baina zenbait talderi bereziki bideratutako ekintzak egingo dira, hala nola, txakur jabeei, tabernariei, gazteei edota eskola umei, esaterako. Ekintza horien artean baliabide desberdinen erabilera egingo da: esku orriak, panelak erabilera publikoko guneetan, iragarkiak, gutun pertsonalizatuak...

Bide horretan, Udalak, bere aldetik, Zumaiaren garapenean erakunde publiko bezala duen arduraz jakitun da, eta hainbat konpromiso hartu ditu. Horien artean daude, besteak beste, administrazio publiko gisa egiten dituen ekintzetan, gizalegezko jarreraren adierazlea izango dela, herritarren erabilera egokitutako kalitatezko espazio eta zerbitzu publikoak bermatuko dituela edota erosketa berdearen politika ezarriko duela Udalak. Ilde beretik, zumaiar guztiei euren konpromisoa eskatuko die ondorengo puntu zehatzetan: batetik, herrikiideekin, naturarekin eta inguruarekin errespetu osoz jokatzeko, eta bestetik, norbanako bezala bizikidetzako jarreraren alde egiteaz gain, ingurukoengan jarrera horietan beraiek bultzatzea.

todavía hay gente que tira la basura al suelo o al agua, otros que no respetan el horario de descanso... Todas estas costumbres, además de empañar la calidad de vida y complicar el civismo, repercuten negativamente en el medio ambiente. Es por ello que el Ayuntamiento ha diseñado una nueva campaña para impulsar el civismo entre las personas y diferentes grupos de la villa. El nombre de esta campaña será 'Ni Zumaiarekin' y los responsables municipales quieren adquirir el compromiso de todos los vecinos para que actúen de forma procedente y de esta manera, conseguir que el municipio sea más agradable.

Es una campaña dirigida a todos los vecinos, pero se organizarán actividades a diversos colectivos como dueños de perros, hosteleros, jóvenes y escolares. Entre las actividades se hará uso de diferentes medios; dípticos, paneles en zonas públicas, publicidad, cartas personalizadas...

Mantener Zumaia limpia es cosa de todos. ¡Coge la ola!

Mendia, kirola eta ingurunearekiko errespetua



Uztailaren 11n jokatu zen Zumaiaiko itsaslabar ikusgarriak zeharkatu zituen Zumaiaiko II. Flysch Trail mendi lasterketa. Iazko estreinako edizioa bikaina izan bazen, aurten beste koska bat egin du gora Zumaia Flysch Trailek. Batetik, parte-hartzaile kopurua antolatzaileek jarritako 400eko mugatik oso gertu egon delako: 360. Bestetik, iazko markak ondu dituztelako ia kategoria guztietan. Gizonezkoetan Raul Garcia izan zen garailea eta emakumezkoetan Ana Conde. Zumaia Flysch Trailaren antolatzaileek, lasterketatik bildutako diruaren zati bat Aspanogi elkarteari bideratuko diote. Minbizia duten haur gipuzkoarren gurasoen elkartea da Aspanogi eta guztira, 3.000 euro jasoko dituzte mendi lasterketako antolatzaileen eskutik.

El 11 de julio se disputó en Zumaia una carrera de montaña de gran nivel. Si la Zumaia Flysch Trail tuvo el año pasado un estreno casi perfecto, este año se ha superado. Por un lado, el número de participantes ha estado muy cerca de alcanzar el límite de 400 establecido por la organización: 360. Por otro lado, se han mejorado las marcas prácticamente en todas las categorías. Raúl García fue el primero en la prueba señor masculino, y Ana Conde fue la ganadora en féminas. En esta segunda edición tampoco faltará el carácter social de la prueba y una parte del dinero recaudado de las inscripciones será para la asociación guipuzcoana de padres de niños con cáncer Aspanogi que recibirá un cheque de 3.000 euros.

Hiria zuri-beltzean



Aurtengo argazki irabazlea.

Josu Garai argazkilaria legazpiarra izan da Zumaiaiko XXII. Argazki Lehiaketako irabazlea. 'Etxea' izeneko argazkiarengatik jaso du Garaik argazkilaritzaz aditu direnek osatutako epaimahaiak emandako saria. Bigarren saria, Xabier Mata Moyarentzako izan da, eta hirugarren saria jaso du Lander Rezolak. Aurten 120 lan aurkeztu dira lehiaketara eta 'Hirikoa' izan da argazkilariek landu duten gaia. Uztailaren 9an egin zuten sari-banaketa ekitaldia Foronda Kultur Etxean eta hilabete horretan zehar, epaimahaikideek aukeratutako 30 lan hoberenek osatutako erakusketa ikusteko aukera izan da Forondan bertan.

El fotógrafo legazpiarra Josu Garai ha sido el ganador de la XXII. Edición del Concurso Fotográfico de Zumaia gracias a su fotografía denominada 'Etxea'. El segundo premio ha sido para Xabier Mata Moya, y Lander Rezola ha recibido el tercer premio. En total, se han presentado 120 trabajos al certamen de este año y el tema que han trabajado los fotógrafos ha sido 'urbano'. El pasado 9 de julio se celebró el acto de entrega de premios en la Casa de Cultura Foronda, y durante el mes de julio se han podido observar en Foronda los mejores trabajos presentados al certamen y seleccionados por el jurado.

Giza eskubideen urraketak ‘in memorian’



“Gure herrian bizi izan ditugun giza eskubideen urraketek memoria behar dute izan, berriz gerta ez daitezzen. Eta horixe da plaka honen bidez gogora ekarri nahi duguna: eraildakoak gogora ekartzea, injustizia batean erori diren familiei elkartasuna adieraztea, mehatxatutakoei, torturatutakoei edota bahitutakoei. Eta azkenik desioa: hau gehiago gertatuko ez denaren esperantza. Uxatu ditzagun armak, balak eta bonbak, eta horren ordez erabil ditzagun hitzak, errespetatu ditzagun giza eskubideak”. Horrela mintzatu zen Iñaki Agirrezabalaga Zumaiaiko alkatea joan den ostiralean Zumaian egin zen indarkeriaren biktimei zuzendutako omenaldian.

Udaleko Alkateak aurrera eramandako ekitaldian, ETak hildako zenbait zumaierren senideak izan dira, eta baita ordezkari politikoak ere; besteak beste, Maixabel Lasa Eusko Jaurlaritzako Biktimen Arretarako Bulegoko zuzendaria.

“In memorian por los que han padecido alguna vulneración de los derechos humanos. In memorian por los asesinados, por sus familias, por los que han sido amenazados, por los secuestrados, por los torturados. Desterremos las armas, las balas y las bombas, y en lugar de ello utilicemos las palabras, respetando los derechos humanos”, fueron las palabras que el Alcalde de Zumaia Iñaki Agirrezabalaga relató en el acto en homenaje a las víctimas que han sufrido la violencia.

Saraunea aparkaleku gisa antolatu du Udalak



Zumaiaiko herritar zein bisitariak aparkatzeko eremu berri bat dute uztailetik. Udalak kirol portuaren ondoko Saraunea deitutako zabalgunea aparkaleku gisa antolatu du uda sasoirako. 200 auto baino gehiagorentzako tokia dauka eremu berriak eta doakoa da bertan aparkatzea. Andoni Etxaniz Hirigintza zinegotziak azaldu duenez, “azken hilabeteetan Portuetako Zuzendaritza Sailarekin harremanetan izan gara kontu honen inguruan eta azkenean akordio batera iritsi gara. Txomin Agirre kaia eta Mendaro Marinelako lanak direla-eta, zenbait aparkaleku gutxiago genituen herrian, baina esku-hartze honek beste 200 autorentzako tokia egin du. Autoa hor aparkatuta, herritarrek zein bisitariak, txalupa zerbitzua edota tren txu txua erabili dezakete herrigunera hurbiltzeko”.

Zumaia dispone de una nueva zona de aparcamiento desde el mes de julio. El Ayuntamiento ha habilitado la explanada de Saraunea como área de aparcamiento el cual dispone de espacio para más de 200 coches. Según el concejal de Urbanismo Andoni Etxaniz, “hemos estado en contacto con la Dirección de Puertos para encaminar el tema y al final hemos llegado a un acuerdo”. Aparcando en esta área, los zumaiarras y los visitantes podrán usar el servicio de barca o el tren txu txu para acercarse al núcleo urbano”.

Zumaiako Auzobusa, herritarren zerbitzura



Andoni Etxaniz Hirigintza zinegotzia eta Iñaki Agirrezabalaga alkatea.

Autobus zerbitzu berriak Oikia eta Zumaia lotuko ditu nagusiki, baina herri barnean ere hainbat geltoki izango ditu.

El nuevo servicio de autobús une principalmente Oikia con Zumaia, pero también tiene varias paradas en el centro.

mugikortasun eredu berri baterako bidean, urrats bat eman du Zumaiako Udalak eta herritarrentzako zerbitzu berri bat abian jarri du. Joan den uztailaren 12tik martxan da Oikia eta Zumaia lotzen dituen Auzobusa autobus zerbitzu berria.

Bost geltokik osatzen dute autobusaren ibilbidea: Tren geltokia, Patxita Etxezarreta, Axular ibiltokia, Oikia herrigunea, eta Oikia kanpoaldeak. Hala eta guztiz, aurrera begira zerbitzua zabaltzeko aukera ez dutela baztertzen jakinarazi dute Udaleko ordezkariak.

Andoni Etxaniz Hirigintza eta Ingurumen zinegotziak azaldu duenez, “zerbitzu berri honekin Oikiak duen behar bati erantzuna ematera gatoz. Oikiak azkeneko urteetan hazkunde nabarmena izan du eta horren ondorioz behar berriak sortu dira auzoan.

“Aurrera begira zerbitzua zabaltzeko aukera ez dugu baztertzen”.

Horietako bat da mugikortasuna eta zerbitzua osatzeko asmotan diseinatu dugu Auzobusa”.

Zerbitzua diseinatzerako orduan, baina, Auzobusaren erabiltzaile nagusi diren oikiarren iritzia ezin utzi jaso gabe, eta aurrez, hainbat bilera egin izan dituzte udaletxean bertan. Jexux Alkorta okiarrak bilera horietan parte hartu du eta azaldu duenaren arabera, “hasiera batean behintzat, zerbitzua oso ondo dago eta jendea erabiltzen ari da”. Alkortaren hitzetan, oikiarren ahotik hainbatetan entzundako eskaria izan da Zumaiarako autobus zerbitzua indartzearena: “Bide horretan, Andoni Etxaniz Hirigintza zinegotzia auzotarrokin bildu zen, Udaletik zuten asmoa azaldu eta informatu gintuen.



Guri, auzotarrok osatutako taldeari, proposamena egokia iruditu zitzaigun eta Udalak aurrera egin zuen”.

Bazkalosteko zerbitzua da Alkortaren esanetan auzotarrek gehien erabiltzen dutena: “Bazkalosteko garraioa botatzen genuen faltan gehienbat. Oikiatik kotxez mugitu beharra zegoen eta gazteen kasuan konplikatua da hori. Orain, zerbitzua nagusiki gazteek erabiltzen dutela esango nuke”. Oikiarren beharrak defendatzerako garaian, jende gaztea mugitu dela aipatu du Alkortak:

“Etxe berri asko egin da Oikian, eta gazte asko etorri da bertara bizitzera. Horrez gain, mugitzeko eragozpenak dituzten jendea ere bada herrian. Eta azkenean, beharra zegoelako jendea mugitu egin da, gazteak batez ere”. Hamabi lagun inguru elkartzen direla aipatu du Oikiako bizilagunak, eta taldean elkartzea auzoarentzako “oso aberatsa” dela gaineratu du.

“bazkalosteko garraioa botatzen genuen faltan gehienbat. Oikiatik kotxez mugitu beharra zegoen”.

Iñaki Agirrezabalaga Zumaiaiko alkatearen esanetan, “Oikia Zumaiarekin lotu dugu zerbitzu honekin, baina ez edozein gunerekin. Tren geltokia da geltokietako bat”. Ildo horretatik, Auzobusaren ordutegiak Eusko Trenek dituen ordutegiekin uztartu dituztela esan dute Udaleko ordezkariak. Oikiako bizilagunentzako ez ezik, herriko beste zenbait auzoetako bizilagunentzako ere zerbitzua erabilgarria izan daitekeela gaineratu dute: “Axular ibiltokitik tren geltokirako ibilbidea, esaterako, oso erabilgarria izan daiteke eremu horretako bizilagunentzako”.


dentro de la iniciativa de promover una nueva política sobre la movilidad, el Ayuntamiento de Zumaia ha dado un nuevo paso. Ya está en funcionamiento el nuevo servicio de autobús que une Oikia con Zumaia. Cada recorrido del servicio Auzobusa cuesta 50 céntimos

y cuenta con las siguientes paradas: Estación del tren, Patxita Etxezarreta, Axular ibiltokia, Oikia centro y afueras de Oikia.

Según informan los responsables municipales, se trata de una prueba piloto que se prolongará a lo largo de un año y no desestiman que se pueda

ampliar el servicio en un futuro próximo.

“Debido al crecimiento que ha tenido el barrio de Oikia en los últimos años, se han surgido nuevas necesidades, y con este servicio saciaremos los problemas que tenían los vecinos en cuanto a lamovilidad”, aseguran desde el Consistorio.



UZTAILA - ABUZTUA

07:30 OIKIA – ZUMAIA*
09:30 OIKIA – ZUMAIA*
13:00 ZUMAIA – OIKIA*
15:30 OIKIA – ZUMAIA
15:45 ZUMAIA – OIKIA
19:00 ZUMAIA – OIKIA
20:00 ZUMAIA - OIKIA*

IRAILA – EKAINA

07:30 OIKIA – ZUMAIA*
08:00 OIKIA – ZUMAIA
09:30 OIKIA – ZUMAIA*
12:30 ZUMAIA – OIKIA
13:00 ZUMAIA - OIKIA*
15:15 OIKIA – ZUMAIA
15:30 ZUMAIA – OIKIA
18:00 ZUMAIA – OIKIA
20:00 ZUMAIA – OIKIA*

* EuskoTrenek eskaintzen duen autobus zerbitzuak. Axular Ibiltokian ez du geldialdireik.

* Servicio ofrecido por EuskoTren. No tiene parada en Axular Ibiltokia.

Ordutegiak eta prezioa

Bi ordutegi desberdin izango ditu Auzobusak. “Bata uda garaikoa, orain abian dena, eta bestea irailetik aurrerakoa”, azaldu du Hirigintza zinegotziak. Astelehenetik ostiralera eskainiko da zerbitzua, asteburutan hasiera batean behintzat ez da

eskainiko, eta 50 zentimo ordaindu beharko da bidaia bakoitzaren truke.

Proba pilotua

Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, urtebeteko proba pilotua izango da zerbitzu abiatu berria. “Behar nagusienak detektatzeko balioko digu

proba pilotuak, ondo neurtuko ditugu joerak eta balorazioak egingo ditugu. Hala ere, orain, autobusaren energia nagusia erabiltzaileak eurak izango dira”, esan du Etxanizek.

Geltokiak:

Tren geltokia, Patxita Etxezarreta, Axular ibiltokia, Oikia herrigunea, eta Oikia kanpoaldea.

a la hora de diseñar el servicio de autobús, el Ayuntamiento ha realizado varias reuniones con los oikiarras. El vecino de Oikia Jexux Alkorta también ha participado en esas reuniones de la que hace una valoración positiva. “El concejal de Urbanismo Andoni Etxaniz se reunió con nosotros para

informarnos de las intenciones que tenía el Ayuntamiento. Ahora, y en un principio, el servicio nos viene muy bien y está siendo utilizado” señala Alkorta.

Comenta que el horario más frecuentado suele ser el de las 15:30, ya que hasta ahora, los vecinos no contaban con

ningún tipo de servicio público para ir a Zumaia por la tarde. “Lo utilizan principalmente los jóvenes porque hasta ahora alguien tenía que encargarse de llevar y traerles desde Zumaia. Pero también hay personas que tienen discapacidades en cuanto a la movilidad y creo que el servicio les vendrá muy bien”.

Zumaiako Musika Jaialdia



a buztuarekin batera, abian da Zumaiako Musika Jaialdiaren 26. Edizioa. Beste urteetan bezala, aurtengo ekitaldirako ere egitarau zabala bezain anitza antolatu du Zumaiako Udaleko Kultura Sailak. Iñaki Agirrezabalaga alkateak eta Kultura batzordeburuak azaldu duenez, “nahiz krisi garaian egon, Udalak kultura eta musikaren aldeko apustua mantendu egin du. Krisiak eragin du, baina, hala ere, jaialdi txukuna osatzeko gai izan da Udala, eta horren adierazle dira Donostiako Musika Hamabostaldi entzutetsuarekin jarraitzen dugun hartu-emana edota bertaratuko diren musikarien curriculumak”.

Joan den asteburuan hasi ziren Musika Jaialdiko lehendabiziko ospakizunak. Udaleko Musikaletako kontzertuak abiatu zuen ostiralean aurtengo edizioa, eta egun berean Zumaiako I. Tertulia Musikalak izan ziren Villa Luz Etxean. Gauean, berriz, Zumaiako Udal Musika Bandak Udako Kontzertua eskaini zuen. Larunbatean, Valentziako Chesteko La Lira Musika Banda Gaztea izan zen protagonista Ondartxo plazan. Igandean, San Pedro abesbatzaren emanaldiak borobildu zuen asteburuko

eskaintza Parrokian eskaini zuen emanaldiarekin.

“Herrian bertan musika klasikoaz gozatzeko aukera paregabea eskaintzen digu Zumaiako Musika Jaialdiak”

Datozen ekitaldietarako ere guztia prest da eta abuztuaren 11ra bitartean iraungodu Musika Jaialdiak. Abuztuaren 3an, asteartean, gitarra doinuak izango dira protagonista komentuan Bernardo Garcia Huidobrok gidatutako emanaldian, eta hurrengo egunean, Klarinete Laukotearen txanda izango da. Carlos Casadó, Marixi Sesma, Miel Emezabal eta Jasone Etxebestek osatutako laukoteak, espiritua elikatzekeo fragantzia musikalak eskainiko dituzte. Abuztuaren 5ean, ‘El acorazado Potemkin’ filmerako prestatuko musikaren interpretazioa egingo dute ‘The Silent Band’, pianoa, txeloa, biola eta biolinek osatutako bandak.

Larunbatean jarraituko du festak Amaia plaza eta jazz doinuak izango

dira protagonista Organiks taldearen eskutik. Igandean, berriz, metal kontzertua izango da The Aligators taldearen eskutik. Formazio klasikotik abiatuta, rock, pop eta soulera hurbiltzen den taldea da eta beraien tronboi eta tuben musikarekin girotuko dute Amaia plaza. Asteartean Ruth Palmer biolinistak emanaldia eskainiko du Komentuan. Antolatzaileen arabera, “nazioarteko onespina lortu duen musikaria da Palmer eta gaur egungo artistarik dinamikoenetakoa ere bada”.

Azkenik, abuztuaren 11n, Done Jakue fenomenoari lotutako bi kontzertu eskainiko dira. Batetik, Donostiako Musika Hamabostaldiarekin batera, Done Jakueko erromeria izango da goizean zehar, eta iluntzean, berriz, Alia Musica taldearen Peregrinatio entzualdia izango da parrokan.

Iñaki Agirrezabalaga alkateak herritarrak animatu ditu ekitaldietan parte hartu eta musika klasikoaz gozatzeko herrian bertan izango dugun aukera paregabea aprobetxa dezaten.

durante las dos primeras semanas de agosto, Zumaia albergará la amplia oferta cultural que caracteriza al Festival de Música de la localidad. Como es habitual, el departamento de Cultura del Ayuntamiento, ha completado una generosa programación en el cual caben destacar los conciertos en conmemoración al año Jacobeo, las actuaciones de los grupos locales, o las sesiones de guitarra, violín, saxo o instrumentos de metal. El Alcalde y presidente de la comisión de Cultura Iñaki Agirrezabalaga, ha querido destacar la calidad de la programación aún en época de crisis, y anima a la ciudadanía a participar en los actos y disfrutar de la música clásica en la propia localidad.

Etxebizitzen irisgarritasunerako ordenantza

apirilaren 29ko ohiko plenoan aho batez onartu zuen Zumaiaiko udalbatzak bizileku erabilerarako eraikinetan dauden etxebizitzen irisgarritasuna sustatzeko udal ordenantza. Horren arabera, eta Lurzoruaren Lege berriak dioenez, irisgarritasun irizpideetara egokitzeko lanak interes publikotzat hartuko ditu Udalak eta lan horiek aurrera eramateko desjabetzeak egin ahal izango dira. Izan ere, une honetan Zumaian ere badira ahalmen urritasuna dutenentzako irisgarritasun arazoak eta zailtasunak dituzten etxebizitzak. Esku hartze hauen onuradunak ezindu edo adin nagusiko pertsonak dituzten jabegoen elkarateak

izango dira eta egitasmo hauen artean sartuko dira igogailuak edota arrapalak jartzea, esaterako.

Ordenantza honen arabera, ezintasuna duen pertsonatzat hartuko da mugikortasuna modu iraunkorrean murriztua duten pertsonak, edota baita 70 urtetik gorakoak. Guztien kasuan, etxebizitza duin batez gozatzeko trabak kentzeko helburuarekin egingo dira esku-hartzeak. Ordenantza honi buruz informazio gehiago lortzeko herritarrek www.zumaia.net atarian ordenantzen atalera jo dezakete, edota bestela, udaletxeko Hirigintza bulegora joanda eskuratu ahal izango dute informazioa.

el pleno ordinario celebrado el día 29 de abril aprobó en unanimidad la ordenanza municipal para la promoción de la accesibilidad a las edificaciones residenciales. El objetivo de esta ordenanza es la determinación y regulación de los criterios y medidas de intervención que posibiliten el acceso de personas con discapacidad a sus viviendas. Para ello, la ordenanza regula la ejecución de las obras o la implantación de instalaciones necesarias para ello, tales como ascensores, plataformas, rampas, etc. Los interesados pueden obtener más información en el portal www.zumaia.net o en el Ayuntamiento.

Etxebizitzen eskabide orriak promozio berrietarako



aurrerantzean Zumaian egingo diren Babes Ofizialeko, udal sustapeneko, alokairuzko edota etxebizitza tasatuen promozioetan izena emateko inprimakiak eskuratzeko zenbait argibide jarraitzeko dei egin die Udalak herritarrei. Eusko Jaurlaritzaren Etxebide erakundearen bidez egingo dira aurrerantzean

babestutako promozio berrietarako izen-emateak, eta horretara bidean, zenbait urrats zehaztu ditu Udalak. Lehenengo eta behin, herritarrek eskabide orria eskuratu behar dute promozio berrietan apuntatzeko. Eskabide orria udaletxean bertan eskuratu daiteke dagoeneko, baina entregatzeko epea irailaren 15ean zabalduko da.

Epe motzean eskainiko diren etxebizitzen tipologia aldaketak eman direlako berrituko ditu Udalak zerrendak. Izan ere, orain, jabetzazko Babes Ofizialeko etxebizitzek gain, babestutako alokairuzko, alokairu sozialeko edota etxebizitza tasatuen eskaintza egingo da. Inprimakiaren inguruko informazio gehiago ondorengo helbidean aurkitu dezakete herritarrek: www.etxebide.info.

el Ayuntamiento llama a la ciudadanía a seguir ciertos pasos en cuanto a la obtención de los impresos para el acceso de Viviendas de Protección Oficial, de promoción municipal, en régimen de alquiler o viviendas tasadas que se construirán a corto plazo en Zumaia. Debido a que se ha ampliado la tipología de vivienda que se ofrecerá en adelante, el Consistorio ha pactado un acuerdo con Etxebide, el cual posibilitará la creación de una lista única de personas interesadas en acceder a una vivienda. Los impresos ya se pueden conseguir en el mismo Ayuntamiento pero el plazo para entregarlas se abrirá el 15 de septiembre.

Aurten 333 ume izan dira udaleku irekietan



Urtetik urtera, gora egin du Zumaiaiko udaleku irekietan parte hartzen duten haurren kopuruak. 1992. urtean ekin zion Zumaiaiko Udalak udaleku irekiak antolatzeari eta ordutik ugariak izan dira bertako ekintzez gozatu duten gaztetxoak. 1997an, esaterako, 197 umek parte hartu zuten eta aurten inoizko kopururik altuena izan da, 333 ume. Araika Arrona udaleku irekietako zuzendariak azaldu duenez, “goraka doa udaleku irekietan parte hartzen duten gaztetxoek kopurua eta horrek, jakina, gero eta buruhauste gehiago ekartzen ditu”. Hala eta guztiz, udalekuek izan duten erantzuna poztekoa dela esan du, eta alde horretatik gustura daude.

“Urtetik urtera, goraka doa udaleku irekietan parte hartzen duten gaztetxoek kopurua”.

Aurtengo programaketan 8-11 urte bitartekoentzako eskaintza indartzen saiatu direla gaineratu du udalekuen zuzendariak: “Nahiz eta urte honetan, nahiko parekatuta joan den, azken urteetan adin tarte horretako gazteen

beherakada antzeman dugu, eta hori dela eta, aurten talde horri bideratutako ekintza gehiago antolatu ditugu, kirol ekitaldiak esaterako”. Gaztetxoenen taldea, berriz, gorakada eman dela esan du: “Horiei begira, urteroko ekintzak egin ditugu, gaztetxoenen artean arrakastatsuak direnak: irteerak, eskulanak...”.

“Aurten, herriko hainbat eragilerekin harremanetan jarri gara eta elkarrekin antolatu ditugu hainbat ekintza”.

Ludotekaren moduan, aurten, lehen aldiz, Udalaren zuzeneko langileak izango dira udaleku irekietako begiraleak, eta ez kanpoko enpresa batek kontratatuak. “Horrek jarraipen zuzenagoa eta koordinatuagoa ahalbidetu du” Arronaren arabera. “Aurten, gainera, herriko hainbat eragilerekin harremanetan jarri gara eta elkarrekin antolatu ditugu hainbat ekintza, surfeko ikastaroa, edota piraguakoa, esaterako. Eta horiez gain, hondartza hezitzailearekin elkarlanean tailerrak eta Mare Urdinaren saioak egin ditugu”.

desde que el Ayuntamiento de Zumaia organizará por primera vez las colonias de verano, en el año 1992, el número de participantes va aumentando año tras año. Este verano ha contado con un total de 333 niños, la cifra más alta de todos los años, por lo que los responsables se han mostrado muy contentos con la respuesta obtenida.

La directora de las colonias, Araika Arrona, ha señalado que en la programación de este año han intentado reforzar las

actividades destinadas a niños de entre 8 y 11 años: “En los últimos años hemos notado un descenso de los niños de esa edad que se inscribían, es por ello que hemos organizado más actividades para ellos, como pruebas deportivas. Así mismo, Arrona ha destacado que los monitores de este año se han contratado directamente desde el Consistorio y no mediante una empresa ajena; “eso permite que el seguimiento sea más directo y coordinado”, ha finalizado la directora de las colonias.

Hondakinen Batzorde Herritarrak lehendabiziko urratsa egin du

Udalak Hondakinen Batzorde Herritarra sortu eta bideratzeko asmoa erakutsi ondoren, egitasmoak aurreneko urratsa egin du. 30 pertsona inguru elkartu ziren ekainean Algorri Interpretazio Zentroan hondakinen inguruko gogoetan parte hartzeko egin zuten bileran. Batzordea eratu eta prozesua adostu zuten: hondakinen kudeaketaren inguruan landu nahi zituzten gaiak zerrendatu eta egingo dituzten bisitak izendatu zituzten.

Elhuyar Aholkularitzak proposatutako gaiez gain, interesgarriak ziren gaiak iradokiz osatu zuten prozesuan zehar landuko zuten gaitegia. Izan ere, hondakinen kudeaketa eredu desberdinak ezagutuko dituzte herritarrek prozesuan zehar, eta gero, hausnarketa egingo dute, bukaeran ondorioakateratzeko. Ondorengoak dira, besteak beste, proposatu zituzten gaiak: konposta, bosgarren edukiontzia, atez ateko bilketa, errauskailua, hondakinak murrizteko politikak, '0 zabor' ekimena, herritarren sentsibilizazioa, edota zergetan hondakinei dagozkien irizpideen inguruko hausnarketa.

Horietatik hainbat lehenetsi zituzten herritarrek prozesuan zehar lantzeko. Hasiera batean, hala ere, Zumaiaiko egoera aztertzetik abiatuko dira.

Hurrengo hitzordua irailaren 11n

Prozesuaren abiapuntuak finkatuta, irailean ekingo dio berriro Hondakinen Batzorde Herritarrak lanari. Iraila eta azaroa bitartean garatuko da hausnarketa fasea, lau bat hitzaldi/bisita egingo dituzte, hurrengo bilerarako data finkatuta dute dagoeneko: irailaren 11n izango da, goizeko 10:00etan. Lur Etxeberria Elhuyar Aholkularitzako teknikariak azaldu zuenez, "batzordeak irekia izaten jarraitzen du, eta, beraz, interesa duten herritar guztiak azaldu daitezke irailean egingo dugun bilerara".

Hausnarketa fasearen ondoren, abenduan, prozesuaren balorazioa egingo dute eta hausnarketatik ateratako ondorioak garatuko dira, gero ordezkari politikoei aurkeztu ahal izateko.

después de que el Ayuntamiento mostrará su interés por crear y enderezar una comisión ciudadana sobre la gestión de basura, el proyecto ha dado el primer paso. De este modo, un total de 30 personas participaron en la reunión que se celebró en junio en el Centro de Interpretación Algorri para reflexionar sobre los residuos. Se formó la comisión y se decidió el proceso a seguir; enumeraron los temas que tratarán y fijaron las visitas que realizarán.

La comisión ciudadana sobre la gestión de residuos se reunirá de nuevo en septiembre, el día 11 a las 10:00 horas. Entre los meses de septiembre y noviembre se realizará la fase de reflexión y la comisión organizará cuatro visitas/charlas. En diciembre se hará la valoración del proceso y comenzarán a desarrollar las conclusiones obtenidas durante la reflexión, para luego, presentarlas a los representantes políticos.

Aurrekontuak, ekarpenekin osatuak

aurten ere, Zumaiaiko Udalak datorren urteko aurrekontuak modu parte-hartzailean lantzeko prozesua martxan jarriko du. Duela bi urte ekin zion Udalak ekimen honi estreinakoz eta aurtengoa hirugarren aldia izango da. Iazko ekitaldian, 90 pertsona inguruk parte hartu zuten eta denera, 140 proposamen inguru jaso ziren. Zumaiaiko auzo guztietako pertsonak parte hartu zuten, eta baita arlo eta talde askotako ere. Udalak joan den urteko parte-hartzaileei eskerrak eman eta aurtengo prozesuan

parte hartu dezaten animatu nahi ditu herritarrak. Uda ondoren hasiko dira bilerak eta Udalak deialdien berri emango die herritarrei bide ezberdinen bidez. "Egiteko moduak aldatu eta Zumaian parte-hartzearen aldeko urratsak eta oinarriak ezartzen jarraitu nahi dugu, guztiok elkarrekin", zehaztu dute udal ordezkariak. Ildo beretik, Zumaiaiko Kultura Plana garatzeko bidean ere, prozesu parte-hartzaile bat aurrera eramango du Udalak, Kudeatuz programaren bidez. Urrian abiatuko da egitasmoa.

Un año más, el Ayuntamiento de Zumaia va a poner en marcha el proceso para que los presupuestos del año que viene se trabajen de modo participativo. Hace dos años desde que el Ayuntamiento puso en marcha este proyecto por primera vez y este año también invita a todos los ciudadanos/as a que participen en el proceso para elaborar los presupuestos. El proyecto comenzará a la vuelta del verano.

“Ingurumen ekintzak oso aberatsak dira jarrera egokiak bultzatzeko”

ekainaren hasieratik ari da lanean Mari Bernal zumaiarra herriko hondartzeko ingurunearen balioak ezagutarazi eta herritarren artean jarrera egokiak sustatzen. Hondartza hezitzailea da bera eta Udalak kontratatu du uda garairako. Oro har eta pixkanaka kontzientzia aldaketa gertatzen ari dela dioen arren, “oraindik bada zer hobetua” bere ustez.



Mari Bernal
Hondartza hezitzailea

Zein dira zure eginkizun nagusiak?

Alde batetik, ISO ziurtagiriaren prozedurak eskatzen dituen eginbide legalak eta dokumentazioa ari naiz jasotzen. Barne auditoria egin dute dagoeneko, hor ISOaren eskakizun eta baldintza guztien ebaluaketa egin dute eta irailean egingo da kanpo auditoria, jada ISOa lortzeko. Horrekin batera, hondartzeko zerbitzuei jarraipena egiten diet, eskatutako ingurumen betekizunak bermatzen dituztela ziurtatu eta instalazioen mantenua ere egokia den ala ez ikusteko. Eta azkenik, ingurumen hezkuntzaren bitartez Zumaiako ingurune naturalaren ezagutza eta balioak zabaltzeko ahaleginean dihardut, jendearen jarrera egokiak bultzatzeko asmoz.

Zerk eman dizu lan gehien?

Azkenaldian kexa ugari ari gara jasotzen nagusiki Itzurun hondartzako hondarraren inguruan. Ekaineko euriteek egur eta adar ugari ekarri zituzten hondartzetaraino eta azkeneko marea biziek, itsasoaren egoera

txarrari gehituta, kostaldean pilatuta zegoen hondakin guztia atera eta hondartzetaraino iritsi da. Urte gogorra izaten ari da garbiketa zerbitzuentzako eta Udala bere aldetik ahal den guztia egiten ari da. Nahiz eta hondartzen garbiketa Aldundiaren eskumena den, etengabeko harremanetan gaude beraiekin.

Hainbat bisita gidatu ere egin dituzu, zer moduzko esperientzia izan da?

Bai bisita gidatuak eta baita udalekuetako haurrekin egindako ingurumen ekintzak ere, oso esperientzia ona izan dira. Nire ustetan, ingurumen ekintza horiek oso eraginkorrak dira jendearekin harremanetan jarri eta jarrera aldaketak sustatzeko.

Herritarrak kontzientzia hartzen ari al gara?

Pixkanaka ari da kontzientzia aldaketa gertatzen, eta espero dut jendearen jarrerak oraindik ere aldatuz joatea. Hala

ere badago zer hobetua. Hondartzeko zakarrontzi desberdinen bereizketa, adibidez, ez da ondo egiten. Zakarrontzi bakoitzean adierazitako dago zer bota daitekeen eta zer ez. Eta garrantzitsua da horiek ondo erabiltzea birziklatzearen helburuak benetan lortzeko. Aurten, gainera, hondartzetan edukiontzi berriak jarri ditu Udalak, zaborra gaika biltzeko.

desde mes de junio, la zumaiarra Mari Bernal está como educadora medioambiental en las playas de Zumaia. Según explica, “su labor consiste en ayudar a mejorar la calidad de nuestras playas y promover actitudes positivas en cuanto al respeto al medioambiente”. Por un lado, está inmerso en la labor de obtener el certificado ISO en las playas de la localidad, y junto a ello, ya tiene realizadas varias visitas guiadas para dar a conocer el valor del ecosistema, así como las actividades que ha llevado a cabo con los jóvenes de las colonias abiertas.

Ardantzabideko igogailua prest dago



a Ide Zaharreko bizilagunek euren auzora igo ahal izateko igogailua erabilgarri daukate dagoeneko. Izan ere, amaitu dituzte Ardantzabide auzoa eta Alde Zaharra lotuko dituen igogailu berriaren instalazio guztiak eta dagoeneko erabilgarri dute Alde Zaharreko bizilagunek zerbitzu berria.

Jadarreko igogailuaren antzera, erabilera publikoa izango du honek ere, eta egunean zehar edozeinek erabili ahal izango du, 7:00etatik 23:00ra bitartean. Gauetz erabiltzeko, berriz, txartelak banatuko ditu Udalak Alde Zaharreko bizilagunen artean. Hori aurrerago egingo da, ordea, eta Udalak auzotarrak informatuko ditu txartelak eskuratzeko jarraitu beharreko urratsak zehazten direnean.

e l ascensor que unirá el barrio Ardantzabide con el Casco Viejo entrará en funcionamiento a principios de agosto. Según informan desde el departamento de Urbanismo, el ascensor será de uso público durante el día, en horario de 7:00 a 23:00 horas. Pero aparte de eso, el Ayuntamiento repartirá tarjetas para que los vecinos del Casco Viejo puedan utilizarlo durante la noche. Una vez se concreten los procedimientos se informará a la vecindad sobre los pasos que deberán seguir para la adquisición de dicha tarjeta.

Bidegorrien sarea handitzen



Z umaiako udalerrian bizikletan ibiltzea are erosoago egiteko bidean lanean ari da Udala. Era horretan, margotu berria da Gernika parkea eta Zumaiako estazioa lotzen dituen bidegorri berria. Oraingo exekuzioan 318 metro margotu dira eta ibilbide berria Gernika parketik estazioraino iristen da.

“Mugi bizikletak maileguan hartzeko zerbitzua indartzeaz gain, herriko bidegorri sarea handitzen ari gara; gaur egun Zumaiak hiru kilometroko bidegorri sarea du eta beste hiru kilometroko ibilbidea daukagu proiektatuta datozen ekitaldietarako.

Lan horiek amaitzen ditugunean sei kilometro izatera iritsiko gara. Zumaia bizikletan ibiltzeko gune erosoak izan dadin lanean jarraituko dugu”, azaldu du Udaleko Hirigintza eta Ingurumen zinegotzi Andoni Etxanizek.

e l Ayuntamiento de Zumaia sigue su labor para que el municipio de Zumaia sea una zona confortable para poder andar en bicicleta. En ese sentido, ha sido acondicionado un nuevo tramo de vía ciclista que une el parque Gernika con la Estación del tren. Se han pintado 318 metros y el nuevo trayecto comienza en el parque Gernika y llega hasta la Estación.

“Aparte de reforzar el servicio Mugi, estamos ampliando la red de bidegorris del municipio; hoy en día Zumaia cuenta con tres kilómetros de vías ciclistas, y tenemos otros tres kilómetros proyectados para próximas actuaciones”, ha señalado en concejal de Urbanismo y Medioambiente Andoni Etxaniz.



Uda aurrera doa, urteko garairik atsegina seguruenik asko eta askorentzat. Horretan zumaierrok zorioneko gabela esan behar, gure herriak hainbat aukera eskaintzen dizkigu eta inguruaz gozatzeko eta ohikoa dena baino atseden gehiago hartzeko.

Gurekin batera, baita guregana etortzen zaizkigun bisitariak ere gozatu dezakete Zumaia. Arro sentitu gaitzke gure herriaz, Zumaia asko eta ona dauka eta eskaintzeko.

Baina aurtengo udan beste oroitzen bat, askoz ere mingarriagoa zaigun gogorapena, egin nahi dugu. Egun gutxi barru hamar urte beteko dira ETAK Joxe Mari Korta erail zuenetik. Abuztuaren 8an izan zen, jendeak hondartzak betetzen zituen bitartean. Ikaragarria gure etxeetan eta kaleetan bizi izan zen mina.

Denborak nekez sendatzen dituen zauriak ireki ditu bortxakeriak Euskal Herrian, eta Zumaia bereziki kolpatua izan da.

Korta aurretik beste lau zumaier hil zituen ETAK. Jose Ignacio Agirrezabalaga, Ceferino Peña, Germán Gonzalez eta Manuel Albizu. Bosten bizitza errotik moztua, bost familia nahigabe beltzean murgilduta. Beste batzuk ere sufritu dute Zumaian, zalantzarik ez. Bortxakeriak eragiten duen etengabeko zurrunbiloan katigatutako hainbeste eta hainbeste urtetako sufrimendua. Zertarako?

2010eko abuztuaren atarian, ETAK Zumaian gauzatutako azken hilketaren hamargarren urteurrena betetzen den honetan, indarkeriak zumaierren artean eragindako nahigabe ikaragarria gomutarazteko Alkatetzak oroitzen ekitaldi xume bat antolatu duela baliatuz, eta nahiz eta jakin edonolako ekitaldiek nekez sendatu dezaketela familien atsekabea eta sumindura, joan bezaie bortxakeriaren eta bidegabekeriaren ankerkeria senitartean bizi izan duten zumaierrei gure elkartasun apala.

Behingoz eta betiko gure herrira, Zumaiera, eta gure Euskal Herrira benetako bakea iritsiko den egunaren bezperan gaudela sinistu nahian.



Zumaian leku batetik bestera mugitzeko beste era batean sinesten dugu eta horregatik **mugikortasun-eredu berri baten aldeko apustua egin dugu** legealdi honetan. Horrela, bizikletan ibiltzeko **bidegorri berriak** egin dira, lehendik zeudenak berritzen ari gara eta etorkizunean gehiago ere egingo ditugu. Gaur egun, 3 km-ko bidegorri sarea daukagu, eta laster 5,5 km izango ditugu. Bada zerbait!

Bestalde, oikiarren aspaldiko eskaera bati erantzuteko, **AUZOBUSA** jarri berri dugu martxan eta laster bizikleten **MUGI zerbitzua Narruondora** iritsiko da, besteak beste. Horrela, pixkanaka, Zumaian batetik bestera mugitzeko aukera berriak ari gara sortzen. Ondo funtzionatzeko, ordea, ezinbestekoa du **herritarren laguntza eta inplikazioa**, eta dei egiten dizuegu zumaierroi aukera berri horiek aprobetxatzeko eta erabiltzeko.

Azkenik, bereziki azpimarratu nahi dugu oposizioko alderdien jokaera. Legealdi guztian zehar, Udal Gobernuaren kudeaketa desitxuratu nahian ari dira, eta horretarako **gezurra** erabiltzen dute behin eta berriro. Adibide pare bat jarriko ditugu:

- PNVren uztailleko aldizkarian, *Zumaia zurekinen*, 2.400.000€-ko frontoia egin behar genuela zioten. Hirigintza Batzordean aurkeztu ziren baldintza pleguetan, 3.200.000 € agertzen ziren.
- PSOEko zinegotziak, zumaia.net-eko elkarrizketa digitalean, Jadarreko 2. fasera 700.000 € baino gutxiago bideratuko zirela zioen. Hirigintza Batzordean aurkeztu ziren baldintza pleguetan, 986.000€ agertzen dira.

Errespetu faltaz eta gezurrez beteriko oposizioa egiten ari dira. Udal Gobernu honekiko jokaera ez dute honezkero aldatuko, hori badakigu, baina, mesedez, ez engainatu herritarrak, errespetatu zumaierren eta ez eman informazio faltsurik. Politikariok hitza dugu lanerako tresna; batzuek, ordea, garbi uzten ari dira hitzik ere ez dutela.



dagoeneko martxan da Oikia eta Zumaia lotuko dituen autobusa: auzobusa. Zerbitzu horrek Zumaia eta Oikiaren arteko lotura sendotzea ekarriko du, herrian bertan dauden zerbitzuak (osasun zentroa, polikiroldegia, dendak...) hurreratu asmoz. Gure lehen asmoa herri guztiko auzoetara zabaltzea bazen ere, horrek suposatzen zuen kostua oso altua zen. Zerbitzu hau beraz, lehen aurrerapauso bezala ulertu behar da eta denbora jakin bat pasa ondoren hausnartu, zabaldu beharra ikusten den ala ez.

Bestetik, Zumaia Zu kanpaina abian jarri dugu, herritarrei gure kaleak txukun mantentzearen beharraz kontzientziatzeko kanpaina da. Zibismoaren aldeko kanpaina. Zakarrak, zaratak, bidegorri eta oinezkoen erabilera okerrak, uraren kontsumoa etab. ukitzen dituen kanpaina da.

Bidegorriak aipatu ditugunez, Txomin Agirre kaia eta Mendaro Marinela kaleetako obrak bide onetik doaz. Urtea bukatzerako obrak (bi kaleak lotzen dituen zubiarenak barne) bukatuta egon behar dute. Bukatzean, herriko bidegorri sarea osatzen lagunduko du eta aparkalekuen, bidegorriaren eta oinezkoen guneak zentzuz eta arrazionaltasun gehiago bermatzea ekarri. Zentzu horretan, mugi zerbitzuan inbertsio berriak egin ditugu, bizikleta berriak ekarriz eta herriko beste gune batzuetara zabalduz. Horrek, sostengarritasunaren aldeko apustu garbia egiten dugula adierazi nahi du.

Udarako Sarauneko zabalgunea, ibilgailuentzako aparkaleku bezala egokitzea lortu dugu. Oraingoan, portuetako zuzendaritzarekin izandako harremanei esker, udaran kotxe andana aparkatzeko tokia izango da hemendik aurrera. Saraunea eta herria hurreratu nahian, txalupa zerbitzua izango da.

Bukatzeke, nazio ikuspuntuko berri pozgarria. Herri honek ziklo politiko berri bat zabalitzen duenaren esperantza agertu da. Bide politiko, zibil eta baketsuetatik soilik, helburu politikoak gauzatzeko akordioa, garrantzitsua da guretzat. EA eta ezker abertzalearen artean lortutako akordioa, urte askoren ondoren, familia politiko ezberdinetatik estrategia batean ados jartzeko aukera izan da. Etorkizuna bakean ikusteko aukera daukagu aurrean. Beti bezala, hori izan da gure apustua.



harrigarria iruditzen zaigu Zumaia Zuren azken alean sozialistak bizikletak alokatzeko sistema publikoaren aurka daudela jakin izana. Batez ere, Donostian sozialistek zerbitzu bera jarri eta handitu dutelako eta Ministerio de Industria eta Eusko Jauritzaren dirulaguntzarekin egin delako, bi erakundeetan sozialistak jaun eta jabe izanik.

Hondakinen kudeaketaren inguruan eztabaida interesgarria sortu da Gipuzkoako udaletan. Gure sistema ekonomikoa zaborrak sortzeko daukan ahalmena ikaragarria da. Azken hamarkadetan gure etxeak plastikoz bete dizkigute eta etxe bakoitzak hondakinak sortzeko fabrika ematen du. Errazago eta kopuru handiagoan birziklatzeko sistemak bermatu beharko ditugu eta batez ere gobernuari ontzi lege berria eskatu. Hiritarrak bi edo hiru aldiz ontziratuta dauden produktuak erostera behartzen gaituzte eta horren eraginez herritarrek eta udalek kudeatu behar ditugu horren ondorioak.

Gai hauen inguruan bideo interesgarri bat gomendatzen dizuegu (ikus idtaziaren behean)
Nos sorprende en el último número de Zumaia Zu ver al PSE en contra del sistema público de alquiler de bicicletas, sobre todo teniendo en cuenta que la implantación ha sido subvencionada por el Gobierno Vasco y el Ministerio de Industria, donde gobiernan los socialistas, y que en San Sebastián este partido ha implantado el mismo sistema.

Sobre el sistema de gestión de residuos, se ha generado un debate muy interesante en los Ayuntamientos guipuzcoanos. Nuestro sistema económico tiene una impresionante capacidad de crear desperdicios. En las últimas décadas, nuestras casas se nos han llenado de plástico y cada hogar parece haberse convertido en una fábrica de residuos. Tendremos que aplicar sistemas de reciclaje más fáciles y eficaces y, sobre todo, exigir a los gobiernos una nueva Ley de Envases. Nos obligan a obtener productos con doble o triple embalaje y, como consecuencia de ello, los ciudadanos y los Ayuntamientos tenemos que gestionar estos desechos.

Aprovechamos para recomendar un vídeo muy interesante sobre el sistema económico el consumo y los residuos

<http://www.youtube.com/watch?v=ykfp1WwVqAY>
<http://www.storyofstuff.com>



Sobre la comisión ciudadana de residuos, como es un tema ya tratado no entraremos en él más que para desear, que los ciudadanos que tengan a bien participar en la comisión tengan una información veraz y autosuficiente que les permita llegar a conclusiones con posibilidad de llevarlas a cabo tanto económicas como ambientales, de lo contrario la frustración de no servir para nada el trabajo desarrollado es muy decepcionante.

Cabría decir lo mismo del proceso participativo sobre presupuestos, en una palabra "saber con lo que se cuenta para saber a dónde se puede llegar sobre todo en temas económicos".

En cuanto al Geoparque apoyamos su creación como su solicitud de reconocimiento a la Unesco, por lo tanto esperamos una respuesta positiva, aunque de todas formas estamos y estaremos abiertos a ayudar como oposición en lo que podamos.

Se nos pide por parte de la Comisión de Gobierno que seamos veraces en la información que da la oposición tanto en estos escritos como en la información dada a la prensa, es una forma muy sutil de llamarnos mentirosos, "sin decirlo". Lo mismo podíamos decir nosotros de la Comisión de Gobierno pero no es esta nuestra forma de hacer política, la mentira no es más que pan para hoy y hambre para mañana, tanto en política como en la vida diaria tanto individual como colectiva, al final la realidad se impone tanto si nos gusta cómo sino, sobre todo en la gestión pública. Es posible un error en las cifras, pero siempre dependen de la información global que se tenga y esa información se recibe precisamente de la Comisión de Gobierno, otra cosa es que moleste la crítica a la gestión municipal pero no es más que una forma como otras, de dar a conocer a la opinión ciudadana desde el respeto a la verdad una visión diferente a la de Gobierno, tan veraz y real como la de la Comisión de Gobierno.

Tenemos pendiente la contestación al escrito presentado por toda la oposición sobre la reducción del gasto o Plan de viabilidad si fuera necesario para evitar el endeudamiento municipal, y hasta ahora la única contestación, es las propuestas de redacción de proyectos presentados en los créditos de compromiso que ya fueron rechazados en pleno, parece como si no quisieran darse cuenta que de 13 concejales, solo 4 componen la Comisión de Gobierno.

Ekainaren 8ko ezohiko plenoa

1- Apirilaren 29ko bilerrako akta onartu zuten.

2- Ogasuna

2.1.- Aldeko zortzi botorekin (EAJ-PNV 4, PSE-EE 2, Aralar-Alternatiba 1, Pilar Etxabe 1) onartu zen Zumaiako Udaleko 4. kreditu aldaketa, eta presazko izaeraz behin-behineko egitea. Talde Mistoa (3) eta EA (1) abstenitu egin ziren.

2.2.- 2010. urterako konpromisozko kredituen egoeraren aldaketa ez zen onartu. Proposamenak aldeko lau boto jaso bazituen ere (Talde Mistoa eta EA), kontrako zazpi boto jaso zituen (PNV, PSE-EE, Pilar Etxabe). Aralar-Alternatiba abstenitu egin zen (1).

2.3.- 2010. urterako aurrekontua gauzatzeko udal araudiaren aldaketa onartzea bidezko egin zen aldeko bederatz botorekin (PNV, Talde Mistoa, EA, Pilar Etxabe). Aralar-Alternatibak ezezkoa bozkatu zuen eta PSE-EEK abstentzioa.

2.4.- 2010. urterako ordenantza fiskalen modifikazioak aho batez onartu ziren.

2.5.- Zumaiako Udalaren, San Juan egoitzaren eta Zumaiako Musika Patronatuaren 2009. urteko aurrekontuen likidazioen berri ematea.

3- Hirigintza.

3.1.- Onartu egin zen Harategiko kalea 13ko xehetasun azterketari behin betiko onarpena ematea. Zazpi boto alde jaso zituen (Talde Mistoa 3, PSE-EE 2, EA 1, Pilar Etxabe 1). EAJ abstenitu egin zen.

3.2.- Aho batez onartu

zen Zumaiako Udalaren eta Itelazpi S.A.ren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea eta alkateari sinadurarako gaitasuna ematea.

4.- Gizarte Ongizatea:

Onartuta gelditu zen 2010. urtean presoekin familiei eman beharreko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza eraberritzearen modifikazioaren hasiera. Alde lau boto jaso zituen (Talde Mistoa eta EA), hiru kontra (PSE-EE, eta Pilar Etxabe), eta EAJko zinegotziak abstenitu egin ziren.

5.- Ez zen bidezko egin langileen lanpostuen zerrendari hasierako onarpena ematea. Lau boto alde jaso zituen (Talde Mistoa eta EA), eta zazpi kontra (EAJ, PSE-EE, Pilar Etxabe).

6- Proposamenak:

6.1.- Aldeko zortzi botorekin (EAJ, Talde Mistoa eta EA) onartu egin zen Talde Mistoak 'Eskubide zibil eta politikoen defentsan' izenarekin aurkeztutako proposamena. PSE-EEKo bi zinegotziek eta Pilar Etxabek kontra bozkatu zuten.

6.2.- Onartu egin zen Talde Mistoak aurkeztutako 'Eskubide guztien jabe, euskal presoak Euskal Herrira izeneko proposamena'. Bost boto alde jaso zituen (Talde Mistoa, EA eta Pilar Etxabe), bi kontra (PSE-EE) eta EAJk abstentzioa.

6.3.- Ez zen onartu eman Talde Mistoak Gaza herriari Israelengandik jasaten duen blokeoaren inguruko proposamena. Aldeko lau boto jaso bazituen ere (Talde Mistoa eta Pilar Etxabe), kontrako sei boto jaso zituen (EAJ, eta PSE-EE). EAJk abstentzioa bozkatu zuen.

agenda abuztua agosto

Deialdiak / Convocatorias:

- 30etik abuztuaren 11ra bitartean ZUMAIAKO MUSIKA JAIALDIA (Ikusi egitaraua hasieran)

De 30 de Julio a 11 de Agosto FESTIVAL DE MÚSICA DE ZUMAIA

Programa de conciertos. (ver programación).

- Uztailak 31, larunbata

12:00etan KAE-2 Estropadak

12:00 h. Regatas ARC 2

Abuztua / Agosto

Igandea, 1 Domingo

12:00etan TKE Estropadak

Regatas ACT

Osteguna, 5 Jueves

07:30etik 12:00etara XXXV. Kabra eta Dontzeila Herri Lehiaketa
XXXV Edición de concurso local de pesca de Cabras y Doncellas.

Igandea 7 Domingo

09:30etik 12:00etara XXXVI. Haurren Arrain Txiki lehiaketa
XXXVI Concurso intersocial de pez chico.

18:00etan Aita Mari futbol zelaian Udako Futbol Txapelketa
Competición de Futbol de Verano en el campo de Aita Mari.

GALA GAUA / NOCHE DE GALA:

20:00etan Amaia plazaan, Julen Izarraren "Organiks" taldea
Actuación del grupo de Julen Izarra "Organiks" en la plaza Amaia.

24:00etan Beheko plazan, HOR KON PON BAND orkestrarekin
berbena berezia.

Verbena especial con la orquesta HOR KON PON BAND en
Eusebio Gurrutxaga.

12, 17, 19, 24 eta 26an

22:30ean Aita Mari aretoan, "UDA KO ZINEMA ZIKLOA"

"CICLO DE CINE DE VERANO" en el cine Aita Mari

12: "Malditos bastardos"

17: "An education"

19: "Green zone"

24: "Up in the air"

26: "La celda 211"

Ostirala, 13 Viernes

10etan hasita, EUSKAL JAI EGUNA: "Hala Gera" albokariak,
Iturengo Joaldunak, Ugarte Anaiak txalapartariak.

EUSKAL JAI EGUNA: albokaris del grupo "Hala Gera", joales de
Ituren, txalapartaris Ugarte Anaiak.

10:00etatik 14:00etara Alde Zaharrean, artisauak eta elikagai
postuak

En la Parte Vieja, puestos de artesanía y alimentación.

12:00etan balkoitik balkoirako Bertso Saioa Sanjuaniturrin

En San Juan Iturri actuación de bertsolaris de balcón a balcón.

13:00etan Upela plazatik irtenda, Zumaiako kantuzaleen kalejira
Desde la plaza Upela, pasacalles de Zumaiako Kantuzaleak.

14:30ean, Beheko plazan, BAZKARI HERRIKOIA: paella erraldoia.
(Txartelak salgai Turismo bulegoan abuztuaren 5etik aurrera)

COMIDA POPULAR: paella gigante (en la oficina de turismo, las
entradas estarán a la venta a partir del día 5 de agosto).

18:00etan hasita ERROMERIA eta SAGARDO DASTAKETA
ROMERÍA Y DEGUSTACIÓN DE SIDRA

18:30ean hasita, Baionako KOXEGUY txarangaren kalejira.
pasacalle de la txaranga KOXEGUY

22:30ean, Beheko plazan, erromeria KUELA taldearekin.

En la plaza Eusebio Gurrutxaga, romería con el grupo KUELA

Igandea 15 Domingo

09:00etan hasita, KALEKO PINTURA LEHIAKETA
CONCURSO DE PINTURA DE CALLE

17:00etan Kofradian haurrentzat PINTURA TAILERRA
TALLER DE PINTURA para niños en la Cofradía.

20:00etan ITZURUN TABERNAN Jazz kontzertua: LOVIS G &
EMANUEL NUR

Concierto de Jazz en el BAR ITZURUN: LOVIS G & EMANUEL
NUR.

Larunbata, 21 Sábado

KOADRILA EGUNA

12:30ean Bostkirol kirol proba/ Prueba Bostkirol. 12:00etan
Bostkirol Txiki/ Bostkirol txiki

12:00etan BIZI-POTEOA

BIZI-POTEOA

14:30ean Eusebio Gurrutxaga plazan, Bazkaria
(bazkaria norberak/edaria eta postrea emango da).
Ondoren, Gaztetxeak antolatutako jolasak.

En la plaza Eusebio Gurrutxaga, Comida Popular (cada uno
deberá llevar su comida; la bebida y el postre a cargo de la
organización)

18:30ean Elektrotxarangaren kalejira

Pasacalle de Elektrotxaranga

19:30ean Kofradian, gaztetxoaren diskoteka

En la Cofradía, discoteca juvenil.

22:30ean Gaztetxean, kontzertua

Concierto en el Gaztetxe.

23:00etan Kofradian, diskoteka 70 eta 80ko hamarkadetako
musika.

En la Cofradía, discoteca dedicada a la década de los 70 y 80.

21etik 28ra

OIKIAKO JAIK

FIESTAS DEL BARRIO DE OIKIA

Igandea 22 Domingo

19:00etan Kofradiako plazan, ERIZ MAGOAREN ikuskizun berria
"Birziklapenaren Magia"

En la plaza de la Cofradía, el nuevo espectáculo de ERIZ MAGO:
"Birziklapenaren Magia"

Ostirala, 27 Viernes

19:30ean kiroldegian ESKUBALOI PARTIDUA: AKABA BERA
BERA - ITXAKO REYNO DE NAVARRA (emakumeen taldeak)

PARTIDO DE BALONMANO FEMENINO en el polideportivo:

AKABA BERA BERA- ITXAKO REYNO DE NAVARRA

Larunbata, 28 Sábado

19:30ean Beheko plazan Tango kontzertua eta
dantza ikuskizuna

En la plaza Eusebio Gurrutxaga
concierto de Tango y espectáculo de
danza.

